


# KEZKO BOLA BATEK ITOAK BIRIKAK

**2019 OTSAILA**

## Miel A. Elustondo

Zerk eraman zuen Helena Tiucalerat? Nor zer Amerika izeneko kubatarra? Zergatik elkartu ziren Guatemalako 3.546 arima bertzerik ez zuen herri txiki hartan? Eta Ñana, nor zen Ñaña? Nolatan bukatuko zuten Ñanak eta Helenak Iruñean?
Zer galdu zitzaion Garbiñeri Dakotan, Pine Ridge lakoten erreserban? Zer lotzen zuen Johnny Douglas Euskal Herriarekin?
Eta On Jaime? Zerk darabilkio On Jaimeri buruan?
Gurutzatzen diren bideak eta gurutzatzen diren munduak. Latinoamerikatik Nafarroako geografia, bertzeak bertze, zeharkatzera eramanen gaituen istorioa da honakoa. Euskara, literatura, sikarioak, ustelkeria... giro beltzezko eleberri eder askoan.
—Amerika, zenbat balio du inoren biziak Tiucalen? –galdegin dio emakumeak.
Eta Baztanen?

**ELEBERRI BELTZA**

ISBN: **978-84-17065-67-6**
ORRIALDEAK: **312 inguru**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **17,00 € inguru**

> **“Euskararen normalizazioan gure mintzoa prestigiatu eta goratzeko ekimena izan nahi du bekak. Euskararen komunitateari ekarpen berria egin, literaturan pisu handikoa den genero beltza, euskaraz ere dastatu eta gozatzeko. Eta, modu berean, gure literatura sisteman, idazleen eta itzultzaileen lana sustatzeko”.**
> **Joseba Otondo (Baztango alkatea)**



**MIEL A. ELUSTONDO**k idaztea du lanbide, baina irakaskuntzan, argitaletxe munduan eta hainbat irrati- zein telebista-saioetan (Sautrelaren sustatzaile eta gidoilari izan da) parte hartu du urteotan. Horrez gain, *Berria* zein *Argia* agerkarietan argitara eman ditu hainbat lan. Argazkilaria ere bada. Euskarara ekarri ditu Jim Thompson idazle eta gidoilari estatubatuarraren hiru eleberri (*Hiltzailea nire baitan*, *Amorruaren ume* eta *Litxarreroak*) Igela etxean eta sorkuntzan ere aritua da. *Western Basque Festival* (Susa, 2007) eta William A. Douglass, *Mr. Basque* (Pamiela, 2011) idatzi ditu besteak beste. Haur literaturako hainbat lan ere plazaratu ditu.






Txalaparta, (H)ilbeltza ekimenaren eta Baztango Udalaren eskutik jaso zuen duela urtebete Miel A. Elustondok euskarazko literatura beltza sustatzeko antolatutako lehen beka, Baztanen jaso ere. Ordainetan-edo, Nevadan, Renon, Euskal Ikasketen zentroa sortu zuen William Douglasen semea ekartzen du Elustondok Baztanera, Habanatik partitzen duen bere eleberri beltz honetan.

txalaparta
www.txalaparta.eus
9 788417 065676